

THINK TANK

Etorkizuneko lanari buruzko eztabaida prozesua: 5. lan dokumentua

Lan dokumentu honek jarraipena ematen die aurreko lau dokumentuei, eta 2020ko azaroaren 19ko bileran egindako eztabaidaren emaitzak jasotzen ditu. Aurreko dokumentuetan esparru orokor bat zehaztu zen. Horietan ezarri ziren, alde batetik, digitalizazioa eta ekonomia berdea lanaren etorkizunari eragingo dioten bi joera handi moduan, eta, bestetik, enpresen lehiakortasuna eta langileen garapena konektatzeko beharra, Gipuzkoak bere ekoizpen jarduerari eusteko erronketako baten moduan. Faktore horiek guztiek bat egiteak aditzaera ematen zuen beharrezkoa zela langilea-enpresa binomiotik langilea-enpresa-lurraldea ardatzean lan egitera pasatzea.

Esparru horretatik abiatuta, azaroaren 19an proiektu experimental baterako proposamen zehatz batzuen inguruan lan egin zen, eremu horretan hausnarketatik ekintzara igaro ahal izateko. Lan horren oinarria MCCk, lurralde/eskualde garapenerako proiektu baten barruan (Debagoiena 2030), lanaren etorkizunari buruz egindako lanaren adibide zehatz bat izan zen.

Proiektu experimental bideragarri bat sortze aldera, dokumentu honetan bateratu dira, alde batetik, eztabaida taldeko parte-hartzaileen ekarpenak eta, bestetik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak Etorkizuna Eraikizen esparruan egindako gogoetak.

Departamentuak ezaugarri hauek planteatzen ditu proiektuaren bideragarritasunerako:

- a) Proiektuak Etorkizuna Eraikizen esparru orokorrean integratuta egon behar du, eta, zehazkiago, ekoizpen sistematik ekonomia berde eta digitalerako trantsizioen esparruan sortzen ari diren dinamiketan. Kontuan hartuta trantsizio estrategia batzuk orain definitzen ari direla, Departamentuaren proiektu experimentalaren prozesu ireki gisa planteatuko da. Prozesu horretarako, lehenengo jarduera urte bat planifikatuko da, eta, etorkizunean Etorkizuna Eraikizen gainerako proiektuekin modu sinergikoan birkonfiguratu da (behar izanez gero).
- b) Etorkizuna Eraikizen proiektu experimentalen ezaugarri jarraituz, proiektua esperimentera bideratuko da, hau da, praktikatik ikastera. Horretarako, Gipuzkoan egoitza duten unibertsitateetako bateko gutxienez ikerketa talde bat sartuko da prozesuan, eta partzuergo bat sortuko da proiektua Aldundiaren eta lurraldeko beste eragile batzuen artean lankidetzan garatu ahal izateko. Prozesuak, gainera, nazioarteko dimentsioa izan beharko du, beste esperientzia batzuetatik ikasteko eta ikaskuntzak beste esparru batzuetan partekatzeko.

Ezaugarri orokor horiekin, honako hau eztabaida taldeak egindako ekarpenen laburpena da, eta 1. eranskinean jasota daude.

- a) Proiektuak berariaz landuko du agenda politikoaren eta herritarren konpromisoaren arteko lotura, aurrean ditugun trantsizio handien inguruan. Horretarako, proiektuaren xedea definituko da lurralde ikuspegi sistemiko baten esparruan, zeinak Gipuzkoako marka bat sor baitezake marka enplegatzaile gisa. Hala ere, behin esparru hori ezarrita, proiektuak trantsizio zehatzak egingo ditu, non administrazio publikoak multzoa antolatzeke eginkizuna beteko duen.
- b) Proiektuak etorkizunean behar diren lanbide eta gaitasun profilak zehazteko prozesu bat izango du. Interesgarria litzateke lanpostu batek izan dezakeen zaharkitze arriskua neurtzeko tresna bat izatea.
- c) Proiektuak Aldundiaren, prestakuntza zentroen eta enpresen arteko lankidetzak publiko-pribatua antolatuko du, diagnostiko partekatu bat izateko Gipuzkoak definitutako profilen beharrari nola erantzun diezaiokkeen jakiteko. Harreman horiek Gipuzkoako gobernantza argitzeko prozesu batean sartuko dira, eta enpresen errentagarritasuna eta lurraldearekiko konpromisoa uztartuko dituzte.
- d) Proiektuak pertsonak izango ditu ardatz, eta kontuan hartuko ditu, berariaz, kualifikazio txikiko eta handiko profilak. Langilea pertsona-enpresa-lurraldea ardatzaren esparruan dagoela ulertuko da, eta horrek esan nahi du lana gure bizitzaren eta komunitatearen garapenaren ardatz nagusitzat hartu behar dela. Interesgarria litzateke «ikaskuntza kontu pertsonalizatua» ideiarekin esperimintatzea. Horrek lagundu beharko luke hobeto ulertzen nola garatu pertsonak gizartean eta lan eremuan birkualifikatzeko eta birkokatzekeko prozesuak. Prozesu horiek lanarekin bateragarriak diren prozesuak ere izan beharko lituzkete, eta ez lukete izan behar soilik ikasketetan aritzen diren pertsonen zuzendutakoak.